



5. AKTA

OHIKO UDALBATZA, 2006ko martxoaren 28an izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Antxoko Kultur Etxean.

NOIZ: Bi mila eta seiko martxoaren hogeita zortzian.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Juan Manuel Domínguez López j. eta

José Basterra Marfil (kargu berriaz jabetu ondoren sartu da batzarean).

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.

José Manuel Anso Martínez j. eta

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a. eta

Aitor Larrañga Burguera

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta

José Luis Mtez. de Espronceda Luiña

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta

Fco. Javier Pombo González j.

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Juan Ramon Gonzalez Medrano j. atxiki gabeko zinegotziak eta

EAJ-PNVko zinegotzia den Joaquin Martínez Vidal j.ak ez dute justifikatu beren ezin etorria. Halaber, bilkura honetan izan da behin-behineko kontuhartzailea Karmele Lizaso Ubera andrea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko batzarraldietako aktak 2.a, 3.a eta 4.a 06-1-31, 06-2-21 eta 06-2-28 datakoak, hurrenez hurren, irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoen esku jarri dira goinburuan aipatutako aktak eta ondorengo aldaketak egin dira:

Miriam Cano EAko zinegotzi taldearen bozeramaileak hala eskatuta ondorengo zuzenketa egin da:

4. akta, 11.or.an eta Goikoetxea j.aren hitz hartzearen ondoren ondorengo paragrafoa sartuko da:
-. Miriam Cano Puy andreak nabarmendu dio Sánchez-Berra jaunari ez duela ulertu bere hitz hartzea, batez ere aldeko botoa eman denean nahiz eta mozioa garaiz kanpokotzat jo. Bigarren baieztapenari dagokionez, atsotitzak dioen bezala “..... oídos sordos”. Eta guztiok ezutzen dugu atsotitzaren lehenengo zatia

Aurreko zuzenketa egin ondoren, udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin erabaki du akta horiek onartzea eta dagokion Akten Liburuan transkribatzea.

2.- Zinegotzi berriaren kargua hartzea.

Hauteskunde Junta Zentraletik JOSE BASTERRA MARFIL jaunaren aldeko egiaztagiria jaso eta dagozkion izapideak burutu ondoren, aktu honetan bere karguaren jabe egin da JOSE BASTERRA MARFIL jauna eskaintzen zaion aukera eskertuz.

Segidan Alkate andreak ongi-etorria eman dio zinegotzi berriari eta Udalbatzan parte hartzen du.

3.- Xedapen Ofizialak eta Alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.

Bertaratutakoen esku jarri da alkate eta zinegotzi-ordezkarien Ebazpen-liburua, horren berri izan dezaten.

Halaber Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiaren epaien berri eman du idazkariak, hain zuzen ere administrazioarekiko auzien 302/04 eta 448/04 zk.dunak, Manuela Iturralde a.ak aurkeztutakoak 2004ko ekainaren 3ko eta abuztuaren 24ko udal honen ebazpenen aurka. Ebazpen horien bidez lehen erabilerako lizentzia ematen zitzaion Bonanza 1.zk.a beheko solairuan dagoen etxebizitzarako. Epaitzek ezetsi egiten dituzte aipatutako errekursoak, errekurritutako ekintzak zuzenbidearekin bat datozeelako.

4.- Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua

Alkate andreak azkeneko bilkuratik hona egin diren gestioen berri eman du:

- Navaladeako lehen harria jartzea.
- Immigrazioari buruzko gidaren aurkezpena.
- Portuko Agintaritzakoekin lehenengo bilera etorkizunean gauzatuko den zehazteko hitzarmena.
- Badia Berriko administrazio-kontseiluaren bilera.
- Koldo Azkoitia foru-diputatuarekin eta Imanol Agoterekin bilera, Ontziolaz eta Molinao itsasadarra leheneratzeaz hitz egiteko.
- Foru Aldundiko Errepide zuzendaritzarekin bilera, erakunde horrek udal honekin duen zorraren inguruan. N-1 saihesbidea egiteko lanek ur-biltegia hondatu zuten eta futbol-zelai berria egin eta udalari emateko konpromisoa hartu batzuen aldudiak.
- Usoz-zelaiaren inaugurazioa.
- Horren ondoren honakoek hartu dute hitza:
 - Mirian Cano a.ak galdetu dio alkateari ea zein gain aztertu ziren Badia Berriekin izandako bileran.
 - Deialdiko aztergaiak irakurri ditu Alkate andreak eta talde politikoei aztergaiak eta eskatzen duten dokumentazioa igorriko dizkiela hitz eman du.
 - Guillermo Sanchez Berrak Urdin Irratia jarduera legeztatzeari buruzko dekretuaz galdetu dio Jesus Garcia Garde Hirigintzako zinegotzi-ordezkarari.
 - Jesus Garcia Gardek adierazi du teknikariaren txostenaren ondoren egin dela ebazpena eta ez dela ixteko agindurik eman baizik eta jarduera legeztatzeko eskaera egin dela, jarduera horrek ez duelako lizentziarik. Hala ere onartu du bera izan zela aipatutako jarduerak lizentziarik bazuen galdetu ziena teknikariei.
 - José Luis Goikoetxeak j.ak adierazi du zinegotzi-ordezkararen azalpenek errepresalia itxura dutela, bere ustez ofizioko jarduera legeztatzeak ezin dira banaka egin baizik eta asko jota orokorrean.
 - Miriam Cano a.ak bere kargua administrazioaren mendekurako erabiltzea aurpegiratu dio Hirigintzako zinegotzi-ordezkarari.



- Guillermo Sánchez-Berra j.aren ustez herritar baten aurkako jazarpena egitea da, pertsona batek esan dituenengatik bere aurka joateko duen kargu politikoaz aprobetxatzea.

5.- Elkartean bildutako Pasai Antxoko bizilagunen mozioa, barrutiko zenbait gairi buruz.

Elkartean bildutako Pasai Antxoko bizilagunek mozio bat aurkeztu dute barrutiko zenbait gairi buruzkoa, hori dela eta Udaltzarak bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez aipaturiko mozioa onartu du hurrengo hitzetan:

“Elkartean bildutako Pasai Antxoko bizilagunek mozio bat aurkeztu nahi diote Udaltzari, irakurri eta azter dezan; eta, bide batez, udal-alderdi guztiei argi eta garbi mozio horren alde agertzea eskatu.

Hauxe da aurkezten den mozioaren testua:

1. Oso larria da, hala uste du behintzat bizilagunen elkarte honek, barruti honetan bizi dugun egoera kronikoa. Iritzi hori, gure elkartean ez ezik, oso ezaguna da Pasaian bertan eta Pasaiatik kanpo ere. Ez dugu uste jada ezer berria denik inorentzat.

Labur esanda, Antxoko bizilagunek diote denbora luzea daramatela ingurumenaren degradazio larria pairatzen; hainbat modutan, gainera; baina, aldiz, ez dutela jasotzen Udaleko biztanle eta zergadun diren partetik jaso behar luketen gutxieneko zerbitzurik ere. Foru Aldundiari dagokionez ere berdin gertatzen da.

2. Aurrekoak esanda, idatzi hau sinatzen duten Antxoko bizilagunek Pasaiako Udaleko Udaltzari exijitzen diote, ahalik eta azkarren, honako helburu hauek betetzeko neurriak hartu eta martxan jartzea:

- Besteak beste, kaleko garbitasun eta higiean dagoen utzikeriari konponbidea ematea. Garbitasun-zerbitzu efikaz eta profesionala exijitzen dugu, izen hori merezi dezakeena, ez suzedaneorik.
- Udal-zerbitzuek, besteak beste, higie eta osasun publikoko gaietan erakusten duten ardura-eza erradikatzea.

- Zirkulazioaren, karga- eta deskarga-lanen, aparkalekuen eta oinezkoen eremuen inbasioaren inguruan nagusitu den anarkia amaitzea. Horretarako, hala nola, ardura hartu behar luketenen ardura-eza amaitu behar da.
 - Luzapen gehiagorik gabe, merkatuko eraikinari konponbidea ematea, inauguratu zenetik bi urte baino gehiago pasa dira-eta.
 - Egin beharreko guztiak egitea barruti honetan gutxienezko administrazio-zerbitzu batzuk izango dituen behar bezalako udal-delegazioa izan dezagun, oinarritzkoa baita guretzat. Anakronismoari amaiera eman behar diogu, ahal den azkarren.
 - Antxon edozein herrik badituen asistentzia-, kultura-, jolas- eta aisialdi-zerbitzuak jartzea, halakoen behar handia dugu-eta. Edonola ere, eta behar den beste aldiz saiatuta, dagokien organoen inplikazioa lortzea.
 - Morealta ingurua erabat birgaitzeko lanarekin konprometitzea, eta konpromisoak biltzea.
 - Orain arteko atzerapenak eta eteteak ikusita, Pasaiako Udalak konpromisoa hartzea Nafarroa Etorbidea udalari itzul dakion.”
- Parte hartzeko tartean, honakoek hartu dute hitza:
 - Alkate andreak hitza eman die proposamena egin dutenei eta bilera bi minuturako eten du taldeek gaiaren inguruan jarrera bateratua ados dezaten
 - Guillermo Sánchez-Berra j.ak herritarrei eskertu egin die egindako hitz hartzea, eta batez ere erabili duten tonua.
 - José Luis Goikoetxea j.ak adierazi du bere taldea mozioaren alde dagoela funtsean, zatitxo batean izan ezik, eta hori kentzea adostu dutela.

6.- Karmengo Amako irakasle-etxearen demanio-aldaketaren inguruko alegazioei erantzun, eta aldaketari behin betiko onarpena ematea.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, honako akordioa onartu du:

Pertsonal eta Administrazio Batzordearen irizpena, 2006ko martxoaren 21ekoa:

“AURREKARIAK



Udalaren osoko bilkurak 2006ko urtarrilaren 10ean behin-behineko onespena eman zion lehengo irakasle etxeak hartzen zituen eraikinaren demaniotasun-mutazioari, eta horren bidez etxebizitzaren zerbitzu publikoari atxikitako jabari publikoko ondasunaren kalifikazioa izatetik hezkuntza-zerbitzuari atxikita egotera igaro zen, eta jendaurrean jarri zen hilabeteko epean Udaletxeko Iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita (19. Zk.a, 2006ko urtarrilaren 30^a, 2.416 or.)

Aipatutako jendaurrean jartzeko izapidearen barruan, 2006ko otsailaren 27ko datarekin Trintxerpeko Carmengo Plaza 1 eta 2ko egoiliarrek aurkeztutako alegazio-idatziari eman zitzaion sarrera Udal Erregistroan –1043 sarrera-zenb.-

Aipatutako idatzian demaniotasun-mutazioaren espedienteari uko egiteko eskatzen da.

Gai horretaz txosten bana egin dute Udal Idazkaritzako Ondare atalak bata, 2006ko martxoaren 10ean, eta hirigintza ikuspegitik Udal Arkitektoak, bestea, 2006ko martxoaren 15ean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeko 54.1.f) artikulua arabera, diskrezio-ahalmenen barruko egintzek arrazoituak behar dute izan.

Aipatutako legearen 89.5 artikulua arabera, txostenak edo irizpenak testuari erantzen zaizkionean, haiek ebazpena arrazoitzeko balioa dute.

Azaldutako guztiagatik, Administrazio eta Pertsonal Batzordeak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin, Udalbatzari ondoko ebazpen-proposamena igortzen dio

EBAZPEN PROPOSAMENA

LEHENA.- Ezestea Iñaki Izquierdo Ribadulla eta bestek, Trintxerpeko Karmengo Plazako 1. Eta 2. zk.etan bizi direnek egindako alegazioak, Ondare Atalak eta Hirigintza Arloko Buruak egindako txostenetan oinarriturik; azken hauek onartzen dira eta akordioari erantzen zaizkio.

BIGARRENA.- Behin betiko onespena ematea Karmengo Plaza 1 eta 2an dagoen bizitegi-eraikinaren demaniotasun-mutazioari, eta hura Hezkuntza Zerbitzuari atxikitzea.



HIRUGARRENA.- Akordio hau onartzeak ez du inondik ere esan nahi Hezkuntza Sailak aurkeztu duen Ikastetxea handitzeko eraikuntza-proiektua bere horretan onartzen denik, eta Sail horrek dagokion eraikuntza-lizentzia bideratu beharko du.”

7.- Gires, S.A. enpresak jarritako berraztertze-errekurtsoa, Arizabaloko obraren lizitazioa eta horretarako onartutako Baldintza ekonomiko-administratiboen Agiria dela eta.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienen adostasunez, honako akordioa onartu du:

Pertsonal eta Administrazio Batzordearen irizpena, 2006ko martxoaren 21ekoa:

GUIRES merkataritza-sozietateak Berraztertze Errekurtsoa jarri du Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregiko udal bulegoak egokitzeko Proiekturako Udalak egin duen obra-kontratuaren lizitazioagatik, eta horretarako onartutako Baldintza ekonomiko-administratiboen Agiria dela eta. Bertan aditzera ematen du ez dagoela ados C, G eta K Taldeaz exijitutako sailkapenarekin, uste baitute behar-beharrezko diren azpitalde edo kategoriak baino ez direla eskatu behar, bestela eskaintzak antzuki mugatuko liratekeelako; eta, azkenik, desegokitzen jotzen dira urbanizatzeko-obrai buruzko aipamenak eta sailkapena.

Udal Idazkariak egin du txostena 2006ko martxoaren 7an.

Era berean Udal Arkitektoak bi txosten egin ditu 2006ko martxoaren 3an eta 15ean, batetik, baieztatuz exijitutako sailkapena desegokia dela eta Baldintza Agirian urbanizatzeko-obrai egiten zaien aipamenenean dagoen akatsa, direlako obra horiek kontratuaren xede ez direnez.

Udal teknikarien arabera K taldea ezin da exijitu eraikina zaharberitzeko lanak ez direnez; izan ere, egiatan obrak zaharberitzearen bigarren fasea dira alde aurretik konpondu zirelako fatxadak eta estalkia, eta berez interes historiko berezirik ez duen hormigoizko eraikin baten barrua egokitzea da; izan ere, hasieratik kendu ez ziren elementu bakanak egin beharreko proiektuak kendu egiten ditu.

Instalazio elektrikoaren edo I taldearen exijentzia dela eta, udal teknikariek ez dute ikusten egokia.

Kontratazioko Aholku Batzordeari aholkua eskatuta, haren Idazkaritzak baieztatu du 2006ko martxoaren 13an, ez dela beharrezkoa K eta I taldeak exijitzea.

Azkenik, C taldeari dagokionez, udal teknikariek proposatzen dute C taldea 1etik 9rako azpitaldea eta D kategoria baino ez eskatzea, uste baitute obraren ezaugarriak ikusita egokiena dela eta eskaintzak egiteko aukera gutxien murrizten duena, goragoko kategoria ezarriz gero gaitasun aski duten enpresak baztertuko liratekeelako, Gipuzkoako batez besteko enpresaren tamaina beste lurralde batzuetakoa baino txikiagoa delako.



Hori guztia kontuan, Pertsonal eta Administrazio Batzordeak, bertaraturako zinegotzi gehienek aldeko botoarekin, Udalbatzari ondoko ebazpen-proposamena igortzen dio:

EBAZPEN-PROSAMENA

LEHENA.- Partzialki baiestea GUIRES, S.A. merkataritza-sozietateak jarritako Berraztertze Errekurtsoa, Pasai Donibaneko Arizabalo Jauregiko udal bulegoak egokitzeko Proiekturako Udalak egin duen obra-kontratuaren lizitazioagatik, eta horretarako onartutako Baldintza ekonomiko-administratiboen Agiriagatik, eta horregatik Agiria modu honetan aldatzea:

- Urbanizatzeko-lanei egiten zaien aipamen oro kentzea, ez baitira proiektuaren xede.
- Baldintza Agiriaren 18.e) idatz-zatia aldatzea, hain zuzen kontratistaren sailkapenari dagokiona, eta soilik C taldea, 1etik 9rako azpitaldea, eta D kategoria exijitzea.

BIGARRENA.- Espedientea kontratazio-espedita eta Baldintza Ekonomiko-administratiboen Agiria onartu ziren unera atzeratzea, eta berriro ere lizitazio prozesu berri bati ekitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: BEDERATZI (9) boto alde, PSE-EE (5), PP (2) y EB-IU (2) taldeetako zinegotziek emandakoak, eta SEI (6) abstentzio, EAJ-PNV (3) y EA (3) taldeetako zinegotzienak.

8. - Bordalaborda 02 HIE esparruan, Portuko zerbitzu eremuaren antolamenduaren aurrerapenaren behin betiko onarpena.

Udalbatzak, bertaraturako zinegotzi gehienek adostasunez, honako akordioa onartu du:

Alkatetzaren proposamena, 2006ko martxoaren 24koa:

BORDALABORDA 02 HIE ESPARRUAN, PORTUKO ZERBITZU EREMUAREN ANTOLAMENDUAREN AURRERAPENAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Udalbatzak, 2005eko maiatzaren 31n erabaki zuen besteak beste H.I.E. Bordalaborda 2 eremuko portu zerbitzuguneko antolamenduaren aurrerapenari hasierako onarpena ematea “*Kordeleia Hiri Eremuaren fitxan, zehazki ekipamendu eta urbanizazio-baldintzei buruzko 3.3. atalean, ondokoa jasoko da: eraikinaren lurpeko solairuetako sarbidea kanpotik egin ahal izango da, eta lurpeko aparkalekua erabilera baimenduen artean egongo da*”.



Aurrerapena jendaurrean jarri zen epean, bi alegazio aurkeztu ziren: bat Juan Carlos Alduntzin Juananena jaunarena, Badia Plataformaren izenean, eta Patxi Arbilaga Ibarzabal jaunarena bestea.

Alegazio batek zioen dokumentua ez zegoela EAeko bi hizkuntza ofizialetan, baietsi egin zen alegazio hori eta akatsa zuzendu; eta jendaurrean azaltzeko epea zabaldu zen berriz.

Idazkariak 2005eko irailaren 5ean aurkeztutako alegazioen berri eman du, eta azaldu du biak Bordalaborda 2 eremuko portu zerbitzuguneari planeamendu-tresna bat emateko erabili den prozeduran oinarritzen direla, hau da, biek adierazi dutela ordenazioaren aurrerapena ez litzatekeela zuzena. Aurrerapena, alegazio-jartzaileek diotenez, eta Pasaiako Arau Subsidiarioen behin betiko onarpen-akordioaren 7. baldintzaren arabera, apartekoa litzateke eta, edozein kasutan, ezingo litzateke aplikatu, onartu zenetik pasa den denbora kontuan hartuta. Aurkeztutako alegazioak guztiz ezestea proposatu du.

Bestalde, Portuko Agintaritzarekin dagokion hitzarmena edo akordioa sinatzea ere ontzat eman zen, aurrerapen hori adostu egin behar baita, aurrerago Portu Eremuen Ordenaziorako Plan Berezian sartzeko; eta horretarako Alkate andreari ahalmena eman eta hitzarmena negoziatu eta sinatzeko.

Pasaiako Udalak eta Portuko Agintaritzak 2006ko otsailaren 27an elkarlanerako hirigintza hitzarmena sinatu zuten, eta hitzarmen hori ere H.I.E. Bordalaborda 2 eremuko portu-zerbitzugunerako ordenazioaren aurrerapen-dokumentuaren parte izango da aurrerantzean, erakin moduan.

OINARRI JURIDIKOAK

Udalbatza da dokumentu hori behin betikoz onartzeko ahalmena duen organoa, Toki Jaurbideko Oinarrien Legearen 22.2 c) artikulua agintzen duenez; betiere, gehiengo absolutuak hala erabakita (47.2 II).

Gai honek Hirigintzako Batzorde Informtzailearen aldeko iritzia jaso du dagoeneko.

Horregatik guztiagatik, Alkate andreak honako hau aurkeztu dio Udalbatzari onar dezan

PROPOSAMENA

LEHENA.- H.I.E. Bordalaborda 2 eremuko portu zerbitzuguneko antolamenduaren aurrerapena behin betikoz onartzea, Arquitectura Chávarri y Asociados, S.L. enpresak, hasierako onarpenaren arabera, idatzitakoa.



BIGARRENA.- Juan Carlos Alduntzin Juanena jaunak, Badia Plataformaren izenean, eta Patxi Arbilaga Ibarzabal jaunak bana aurkeztutako alegazioak ezestea.

Alegazio-egileek diotenaren kontrari, Estatuko Portuetako eta Merkataritza Itsasketari buruzko 27/1992 Legearen 18.2 artikulua dioenaren indarrez, Portuko Plan Berezia da portuko eremuaren antolamendua erabaki dezakeen tresna urbanistiko bakarra. Ordenazio-tresna orokorrak Estatuko Portuen zerbitzugunea portuen sistema orokor moduan kalifikatzea dute zeregina.

Pasaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioen behin betiko onarpenaren akordioak honakoa xedatzen du: *“2. Portuko zerbitzugunea osorik portuko sistema orokor moduan kalifikatzen da. Arau Subsidiario hauetan eremu horrentzat ezarri diren erabilera eta zehaztapenak ez dute arau izaerarik. Hala ere, Portuko Agintzaritzak Portua Antolatzeko Plan Berezia egiten duenean jarraibide bezala erabiliko dira, betiere agintaritza horrek aipatu Plana aurkeztu duenean egiaztatzen bada, era arrazoitu eta frogatuan, erabilera eta zehaztapen horiek ez dituztela Portua ustiatzeko eskuduntzak eragotziko.*

Beste alde batetik, dokumentuak argi eta garbi uzten du zein diren Arau Subsidiarioen onarpen-akordioan jasotako ordenazioaren aparteko aurrerapena justifikatzen duten zirkunstantziak, eta horregatik alegazio-egileen argudioa indarge geratzen da.

HIRUGARRENA.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Eta, beste gairik ezean, 10:30etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.